

EBAZPENA, 2019KO ABUZTUAREN 12KOA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIARENA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN 2019-2021 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendariaren 2018ko urriaren 31ko Ebazpenaren bidez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2019-2021 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikulua ezarritakoaren arabera, dirulaguntzen ezarpena proposatzen duten administrazio publikoetako organoek, aldezturik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako 2015eko irailaren 18ko 01/15 Zirkularrean, Dirulaguntzen Plan Estrategikoak egiteari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail guztiek, bai eta haren erakunde autonomoek ere, plan estrategiko bat onartu behar dute, non dirulaguntzen jarduera guztia jasoko den.

Aurrekoa betez, DPEa aldatu eta fitxa tekniko berri bat erantsi da, 2019-2021 DPEan jasotzen ez den deialdi bati buruzkoa: **Enpresa eta erakunde pribatuentzako ezohiko dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko bat eta berdintasun-plan bat egiteko aholkularitza-enpresa homologatu bat kontratatzeko.**

Azkenik, kontuan hartu behar da plana programatikoa dela, ez arautzailea, eta, beraz, haren edukiak berez ez duela sortzen ez eskubiderik, ez betebeharririk. Ondorioz, plana eraginkorra izan dadin, dirulaguntzen hainbat ildo abiarazi behar dira, ekitaldi bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta, besteak beste.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena.– Onartzea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2019-2021 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa, eta 3.2.8 atalari dagokion fitxa teknikoa sartzea, eranskinean jasotzen den bezala.

Bigarrena.– Agintzea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen webgunean argitaratuz argitara eman dadila.

Hirugarrena.– Plana gauzatzera bideratutako urteko zuzkidura ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeetan jasotakora egokituko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 12a.

IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.

ERANSKINA

3.2.8

2019KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
ENPRESA ETA ERAKUNDE PRIBATUENTZAKO EZOHICO DIRULAGUNTZAK, AHOIKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO. 2019: 80.000 € (47 3223 01 45200 001)
Xedea: 4. -- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.
Ekintza: 4.3. -- Gizarte-antolaketa erantzukidea 4.3.1 Enpresa eta erakunde pribatuetan berdintasun-politikak gara daitezen sustatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren, laguntza ekonomikoen eta aitorten sozialaren bidez
Adierazlea: - 23-33, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko enpresei eta erakunde pribatuei emandako dirulaguntzen kopurua.
BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).
HELBURU ESTRATEGIKOA: II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.
3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA
3.4. -- Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunarekin parekatzea.
3.4.1 Kultura eta enpresa-praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuen kopurua handitzea.
Adierazleak: Emakunderen metodologiatik abiatuta diagnostikoak eta berdintasun-planak egin dituzten enpresa eta erakunde pribatuen kopuruaren bilakaera. Beren berdintasun-plana egiteko aholkularitza espezializatua jasotzen duten erakunde publikoen, gizarte-agenteen, enpresen eta erakunde pribatuen kopuruaren bilakaera.